## 2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

### MENDI ZERBITZUAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Mendi Zerbitzua Araban dauden mendietako berezko ekosistemak zaintzeaz eta ekoizteaz arduratzen da; mendi horiek 183.826 ha-ko azalera hartzen dute Araban, hau da, Arabako lurraldearen % 60,52; eta mendi publikoen hedadura, bestalde, 143.384 ha-koa da (mendien azaleraren % 78). Horrez gain, Mendi Zerbitzuak bere gain hartzen ditu ehiza eta arrain baliabideak bultzatzeko eta mantentzeko lanak, Arabako ur-ibilguetako bizitza urtarraren kalitateari eusteko zereginak barne hartuta.

Baso kudeaketa iraunkorraren helburua mendi sistemetatik produktu eta zerbitzuetan errentagarritasun handiena lortzea da, haien barruan funtsezkoa den bat sartuta: mendiko ekosistemekin loturiko biodibertsitate biologikoaren mantentzea alegia.

Programaren aurrekontuko partiden bitartez gauzatzen dira hurrengo ekintzak: baso sistemak ahalik ondoen mantentzea, lur hautatuetan haziak hartzetik landare egokiak lortu arteko lanak, basoen birsortze naturala sustatzea (Araban garrantzia handia du, herri mendiek betetzen duten azalera dela medio) osasun egoeraren eta oreka biologikoaren jarraipena egitea, basoetako suteek duten eragina murrizteko prebentzioa, zaintza eta lanak, eta suebaki eremuak sortzea.

Arabaren ondarekoak diren eta Arabako Foru Aldundiak zuzeneko partzuergoan dituen mendietan egiten diren lanak beste hauetarako ematen diren dirulaguntzekin osatzen dira: nola mugak ezartzea, mugarriak jartzea eta plan teknikoak, hala toki erakunde txikiek eta partikularrek kudeatzen dituzten proiektu eta lanak; betiere, Europar Batasunaren arauen barnean; horretarako izapidetzen dira planetan aurreikusitako dirulaguntzak.

### MEMORIA DEL SERVICIO DE MONTES

### I. MEMORIA

El Servicio de Montes atiende en las distintas facetas de este programa a las actividades de conservación y producción de los ecosistemas propios de los montes, que ocupan en Alava una superficie de 183.826 ha, que supone el 60,52% del territorio alavés, siendo la extensión de montes públicos de 143.384 ha (el 78% de la superficie de monte), así como a las facetas de promoción y mantenimiento de los recursos cinegéticos y piscícolas, incluyendo la permanencia de la calidad de la vida acuícola en los cursos y planos de agua de Alava.

La gestión forestal sostenible tiene como objetivo a obtener la máxima rentabilidad de los sistemas montanos en productos y servicios, incluyendo en éstos uno tan fundamental como es el mantenimiento de la biodiversidad biológica asociada a los ecosistemas montanos.

La consecución del mejor estado posible de los sistemas forestales, desde la obtención de semillas de rodales selectos hasta el logro de las plantas adecuadas, el fomento de la regeneración natural de los bosques, de tanta importancia en Alava dada la extensa superficie de montes públicos, el seguimiento del estado sanitario y del equilibrio biológico, la prevención, vigilancia y obras que disminuyan la incidencia de los fuegos forestales y la creación de áreas cortafuegos se canalizan a través de las partidas presupuestarias del programa.

Los trabajos en los montes patrimoniales de Alava y en los montes consorciados directamente por la Diputación Foral, se complementan con las subvenciones que se conceden para deslinde, amojonamiento, ordenación y planes técnicos, así como para proyectos y obras gestionados por las Entidades Locales Menores y los Particulares, de conformidad con los Planes de Ayudas derivados de las normas reglamentarias de la Unión Europea, a cuyo efecto se tramitan las subvenciones previstas en

los planes.

Basoko suteei aurrea hartzea eta mendiak haietatik babestea eta basoen osasun egoeraren jarraipena –hala dagokionean, izurri eta gaixotasunen tratamendua barne delarik- Arabako mendien baso kudeaketaren atal garrantzitsu bat dira.

La prevención y defensa del monte contra los incendios forestales y el seguimiento del estado sanitario de los bosques, incluyendo en su caso el tratamiento de plagas y enfermedades, constituyen una parte importante de la gestión forestal de los montes alaveses.

Zerbitzu honek egiten dituen gainerako jarduerak honako hauek ditugu: ehiza eta arrain populazioak aztertzea, ustiapena planifikatzea, ehiza eta arrantza federazioekin eta ehiztarien eta arrantzaleen elkarteekin lankidetzan aritzea, eta zaintza lana egitea landa ingurunearen eta ingurune urtarraren baldintzak basoko bizitza garatzeko egokiak izan daitezen.

El estudio de las poblaciones cinegéticas y piscícolas, la planificación de su aprovechamiento, la colaboración con las Federaciones de Caza y Pesca y las Asociaciones de Cazadores y Pescadores, así como la vigilancia y mantenimiento de las condiciones apropiadas del medio rural y acuícola para el desarrollo de la vida silvestre completan las actividades de este Servicio.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Ondoren programaren helburu bakoitzari esleitu zitzaion zenbakiaren arabera azalduko dugu helburu horren gauzatze maila.

1. *Baso jabetza publikoa aseguratzea.*

   Ofizioz hasitako onura publikoko mendien mugapeneko 2 espedienteak eta 5 espedienteren administrazio ebazpena bideratuz burutu zen baso jabetza publikoaren defentsa.

   Halaber, laguntza planaren bidez mugapeneko 13 txostenek dirulaguntza jaso zuten eta Mendi Zerbitzuko teknikari batek ingeniari eragile lanak egin zituen Arabako Foru Aldundiaren izenean.

   Katalogatutako mendien okupazio edo trukaketako 20 txostenetan esku hartu zen, informazioa emanez edo mendien onura publikoarekin bateragarriak izanez gero, baimena izapidetuz.

2. *Sute eta gaixotasunak saihestea*

   Basoko suteak prebenitzeko, suebakien areak mantentzeko baso lanak egin dira 52 toki erakunderen mendietan. Zaintza taldeak *alerta* egoeran egon ziren arrisku maila neurrizkoa baino altuagoa izan zen egunetan, eta horrela guztira

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

A continuación exponemos el correspondiente grado de cumplimiento en función del número que se le asignó a cada objetivo del Programa.

1. *Asegurar la Propiedad Pública Forestal.*

   La defensa de la Propiedad Pública Forestal se ejerció continuando con los 2 expedientes de deslinde de montes catalogados, iniciados de oficio en 2008 y la Resolución administrativa 5 expedientes.

   Además, a través del Plan de ayudas se subvencionaron 13 expedientes de deslinde en los que un técnico del Servicio de Montes realizó las tareas de Ingeniero Operador en nombre de la Diputación Foral de Álava.

   Se intervino, informando o tramitando la correspondiente autorización en caso de compatibilidad con la utilidad pública de los montes, en 20 expedientes de ocupación o de permuta en montes catalogados.

2. *Evitar incendio y enfermedades*

   Se realizaron obras y trabajos selvícolas de prevención de incendios forestales, de mantenimiento de áreas cortafuegos en montes propiedad de 52 Entidades locales. Los retenes de vigilancia estuvieron en situación de *alerta*

zaintzako 252 egun zenbatu ziren. Talde horiek 51 sute itzaltzeko lanak egin zituzten. Suteek eragindako basoko azalera guztira 731,99 ha-koa izan da. Uztailaren 22an azalera horren 687,08 ha erre ziren –muturreko alerta- eta Araban 1989. urteaz geroztik egondako suterik handiena izan da.

Zaintzapeko 226 erreketarako baimenak izapidetu ziren.

Basoko osasunari dagokionez, 331 konifero pinu beldarretik babesteko lanak egin ziren (51 ha lurreko tratamenduaren bidez eta 280, aldiz, aireko tratamenduaren bidez), baita 1.085 ha hostotsuetatik babesteko ere, aireko tratamenduaren bitartez. *Gibberella circinata* (=*Fusarium circinatum) antzemateko,* 119 lurzatitan, sare iraunkorraren eta ibilbideen artean, prospekzioak egin ziren. Hala, jasotako analisien 43 azterketa egin ziren laborategian; halaber, sare iraunkorraren lurzatien eta egurra prozesatzeko industrien eta mendian arrisku handia duten lekuen 50 ikuskapen egin ziren, 34 laginen erregistroarekin eta *Bursaphelenchus xylophilus* antzemateko analisiarekin; horrez gain, gaztainondo kopuru handia duten Arabako zonetan prospekzioak egin ziren, *Dryocosmus kuriphilus* organismoa bertan ote zegoen antzemateko; ekintza prebentibo horiek guztiek basoen eta loturiko sistemen indarra zaintzeko bidea eman dute –aipatu ekintzen bidez egiaztatu ahal izan da gure lurraldean koarentenako hiru organismoak ez daudela-. Informazioa trukatu eta eguneratu eta koarentenako hiru plaga horiek modu eraginkorrean antzemateko ezagutzak indartze aldera, honako hauen bileretara bertaratu gara: Landare Osasunerako Batzorde Nazionala; Basoen, Parkeen eta Lorategien Landa Osasunerako Lantaldea; eta EAEko Baso Osasuna.

3. *Mendi publikoak modu iraunkorrean kudeatzea*

Urteko 35 baso planen bitartez, 2009. urtean

durante los días en los que el nivel de riesgo fue igual o superior a moderado, lo que contabilizó un total de 252 días de retén. Se atendieron por estos mismos equipos los trabajos de extinción de 51 incendios forestales. La superficie forestal total afectada por los incendios fue de 731,99 hectáreas. De esta superficie 687,08 hectáreas se quemaron el día 22 de julio, que fue de alerta extrema, y en el que se concentraron los mayores incendios habidos en Álava desde el año 1989.

Se tramitaron 226 autorizaciones de quemas controladas.

En sanidad forestal, se trataron 331 ha arboladas de coníferas contra la procesionaria del pino (51 ha mediante tratamiento terrestre y 280 ha mediante tratamiento aéreo) y 1.085 ha arboladas principalmente de frondosas, mediante tratamiento aéreo. Se prospectaron 119 parcelas, entre la red permanente e itinerarios, para la detección de *Gibberella circinata* (=*Fusarium circinatum)*, realizándose 43 análisis de laboratorio de las muestras recogidas; así mismo se realizaron 50 inspecciones correspondientes tanto a las parcelas de red permanente como a industrias de procesado de la madera y lugar de alto riesgo en el monte, con el registro de 34 muestras y análisis para la detección de *Bursaphelenchus xylophilus*; también se ha realizado la prospección de las zonas con mayor presencia del castaño en Álava encaminada a la detección de la presencia del organismo *Dryocosmus kuriphilus*; contribuyendo todas estas acciones preventivas, que han constatado la ausencia de los tres organismos de cuarentena en nuestro Territorio, a la conservación del vigor de los bosques y sistemas asociados. Se ha asistido a diversas reuniones del Comité Fitosanitario Nacional, del Grupo de Trabajo Fitosanitario de Forestales, Parques y Jardines y de Sanidad Forestal de la CAPV (Gobierno Vasco y Diputaciones Forales) para intercambiar y actualizar información y reforzar los conocimientos para la detección eficaz de estas tres plagas de cuarentena.

3. *Gestionar de forma sostenible los Montes Públicos*

Mediante 35 planes forestales anuales, se

hurrengoak arautu ziren: egur aprobetxamenduak, suetarako egurrak, mendi publikoetako laboreetarako luberriketak eta larreak, bazka eremuak, birsorkuntza naturaleko eremuak mugatzea. Betiere, helburu bikoitzarekin: alde batetik, baliabideetatik ahalik etekin handiena ateratzea eta horien garapen jarraitu edo iraunkorra. Horrez gain, “Eroritako eta ateratako adarrak” aprobetxatzeko 284 baimen izapidetu ziren. Aipatu zifra joan urtekoa baino handiagoa izan da eta egoera hori Klaus zikloiaren ziozkoa izan da.

Foru ondarearen mendietan, mantentzeko eta leheneratzeko 3 proiektu burutu ziren. “*Higatzeko arriskua duten mendiak baso berritzea*” hizpide duen EGEF Programa (2007-2013) izenekoaren barruan 26,96 ha-ko azalearen gainean baso berritzeko 2 proiektu eta 24,5 ha-ko azaleraren gainean erretako areak leheneratzeko 2 proiektu burutu ziren. Bazterkeria egoeran geratzeko arriskuan zeuden pertsonek, bereziki, presoek, parte hartu zuten aipatu proiektua egiten.

Basoko Laguntza Planaren bidez, zenbait motatako basoko jarduerei lagundu zitzaien mendi publikoetan; laguntza horiek Arabako 63 erakunde publikok jaso zituzten, udalen, administrazio batzarren, komunitateen eta erkidegoen artean.

Mendietako sistema teknikoak eta kudeaketa sistemak hobetzeko, mendietako lareen produktibitateari buruzko azterlanarekin jarraitu zen, Europako Natura 2000 Sare Ekologikoak barne hartutako alde menditarrak bereziki aipatuz. Horren ildotik, azterlana aditzera eman zen eta beharrezko txostenak eta baldintzak aintzat hartu ziren, Kontsultarako Batzordeari jabari publikoko mendietan motordun ibilgailuen zirkulazioari buruzko zirriborroa bidaltzeko. Espazioak kudeatzeko 4 plan idazteko agindu zen. Espaziook “Arabako Lurralde Historikoko Baso Erreserben Katalogoan” txertatzea proposatu zen.

4. *Mendi pribatuen kudeaketa iraunkorrean laguntzea*

regularon en 2009 los aprovechamientos madereros, de leñas foguerales, de roturaciones para cultivos y prados en montes públicos, de pastos, de acotamiento de zonas para regeneración natural, procurando obtener la máxima renta de recursos, compatible con el sostenimiento continuado de los mismos (desarrollo sostenido o sostenible). Además se tramitaron 284 autorizaciones de aprovechamiento de “Leñas muertas y rodadas”, una cifra muy superior a la del año anterior, a causa del ciclón Klaus.

Se efectuaron 3 proyectos de mantenimiento y recuperación en montes del patrimonio foral. Dentro del Programa FEDER 2007 - 2013 de *“Restauración Forestal de Montes en Riesgo de Erosión”* se ejecutaron 2 proyectos de forestación sobre una superficie de 26,93 ha y 2 proyectos de restauración de áreas quemadas sobre una superficie total de 24,5 hectáreas, y en cuya ejecución se integraron personas con riesgo de exclusión, en concreto presos.

A través del Plan de Ayudas Forestales, se auxiliaron actuaciones forestales de diversa índole en montes públicos de las que resultaron beneficiarias 63 entidades públicas alavesas, entre Ayuntamientos, Juntas Administrativas y comunidades y Parzonerías.

Para mejorar los sistemas técnicos y de gestión sostenible de los montes se continuó con el estudio de productividad pascícola en los montes, con incidencia especial en los espacios montanos integrados en la Red Ecológica Europea “Natura 2000. Se sometió a información publica y se completaron todos los informes y requisitos necesarios par enviar a la Comisión Consultiva el borrador de una normativa de circulación en vehículos a motor por los montes demaniales. Se encargó la redacción 4 planes de gestión de espacios propuestos para su inclusión en el “Catálogo de Reservas Forestales del T.H. de Álava” cuando éste se apruebe.

4. *Ayudar a la Gestión Sostenible de los Montes particulares*

Basoko Laguntza Planaren bidez basotzeko, trakaz garbitzeko, argitzeko, ixteko eta bestelako jarduketetarako proiektuek dirulaguntza jaso zuten; guztira 160 txosten izan ziren, eta onuradunak, sexuaren arabera, 101 gizon eta 49 emakume, eta 10 elkarte, sozietate mugatu edo ondasun erkidego izan ziren.

Zuhaitzak mozteko 480 baimen izapidetu ziren titulartasun pribatuko mendietan.

5. *Ehiza modu iraunkorrean kudeatzea*

Ondokoak dira Ehizarako xedapen nagusiak: ehiza debekaldiari buruzko agindua; udazkeneko uso pasearen garaiari dagokiona, eta Arabako mendebaldean, orkatzari dagokiona; Kuartangoko Gizarte Barrutiaren erabilera arautzen duen araudia.

2009 urtean, Kuartangoko Esparru Sozialeko lurren errentamenduarekin eta, ondorioz, lur horietan dagoen Ehiza Esparru Sozialaren kudeaketarekin jarraitu egin zen. 240 ehiztarik oilagorra ehizatzeko baimena izan dute ehiza esparru sozial horretan. Gainera 1.573 faisai askatu ziren eta haien ehizan 658 ehiztarik hartu zuten parte.

Arabako Ehiza Esparruen Elkartearekin (ACCA) eta Arabako Arrantza Federazioarekin elkarlanean jarraitu zen. Aipatu lankidetza edo elkarlana Ehiza Esparruen *EHIZA* Elkartearekin lankidetza hitzarmena sinatuta hasi zen. Horren bidez ehiza eta arrantza baliabideak planifikatu eta behar bezala erabil daitezke; hori guztia ehiza barrutiak kudeatzen laguntzeko foru aginduak barne hartzen du.

Ehiza espezieek eragindako zirkulazio istripuen inguruko 207 informazio espediente izapidetu ziren.

Fauna zinegetikoaren kudeaketari buruzko 2 ikerketa kontratatu ziren.

Fauna zinegetikoa hobetzeko lanek dirulaguntza jaso zuten; 7 ehiza barrutik jaso zituzten

A través del Plan de Ayudas Forestales se subvencionaron proyectos de forestación, desbroces, claras y clareos, cierres y otras actuaciones en un total de 160 expedientes, siendo las personas beneficiarias, desglosadas por sexo, 101 hombres y 49 mujeres, mientras que en 10 casos se trató de asociaciones, sociedades limitadas o comunidades de bienes.

Se tramitaron 480 autorizaciones de corta de arbolado en montes de titularidad particular.

5. *Gestionar de Forma Sostenible la Caza*

Las Orden Anual de Caza (conocida como Orden de Vedas), así como la correspondiente a la caza de la paloma en la época otoñal de pasa y la del corzo en el occidente de Alava, junto con la normativa que regla el uso del Coto Social de Kuartango son las disposiciones principales en materia de Caza.

Durante el año 2009 se continuó con el arrendamiento de los terrenos del Coto Social de Kuartango y con la subsiguiente gestión del Coto Social de Caza ubicado en dichos terrenos. 240 cazadores han disfrutado de permisos de caza de becada en este coto social. Además se liberaron 1.573 faisanes en cuya caza participaron 658 cazadores.

Se continuó con la colaboración con la Asociación de Cotos de Caza de Alava (ACCA) y con la Federación Alavesa de Pesca y se inició, mediante la firma de un convenio la colaboración con la Asociación de Cotos de Caza *EHIZA*, lo que ha facilitado la planificación y utilización correcta de los recursos cinegéticos y piscícolas, que se completa con la Orden Foral de ayuda a la gestión de cotos de caza.

Se tramitaron 207 expedientes informativos sobre accidentes de tráfico ocasionados por especies cinegéticas.

Se contrataron 2 estudios en relación a la gestión de la fauna cinegética.

Se subvencionaron trabajos de mejora para la fauna cinegética, subvenciones de las que fueron

dirulaguntzok.

Otsoek abereei eragindako kalteen zioz jazotako erasoen ondotik 68 kasu peritatu ziren eta kasuan kasuko kalte-ordainak izapidetu ziren. Otsoen erasoak jasan zitzaketen abeltzaintzako ustiategiei 13 artzakur edukitzeko laguntzak eman zitzaizkien.

6. *Arrantza modu iraunkorrean kudeatzea*

Debekualdiari buruzko Foru Aginduak arrantza epeei eta guneei buruzko arautegia xedatu zuen. 2009. urtean arratzaren murrizketekin jarraitu zen, Sobron urtegian eta Ebro ibaian, Arabako ertzetan, izandako zebra muskuiluen izurriaren ondorioz. Hala, salbuespenezko neurriak ugaritu ziren, Zadorraren ertzetan arratza mugatuz. Nobedade gisa, aldundiak salabardoak desinfektatzeko puntua ezarri zuen eta Zadorrako barrutian karramarroa arrantzatzen zuten arrantzaleek nahitaez erabili behar zuten baliabide hori.

2009an Arabako Arrantza Federazioarekin Arabako arrantza kontrolatzeko eta baimenak izapidetzeko hitzarmenarekin jarraitu zen.

Aldundiak zuzenean 3.940 kg amuarrain ostadarrez birpopulatu zituen Arabako ibaiak, eta Arrantza Federazioaren laguntzaz espezie bereko 7.405 kg gehiagoz.

URA, Uraren Euskal Agentziak eskatuta, urek arrainentzako kalitateari dagokionez jasandako balizko kalteei buruzko 7 txosten jakinarazi ziren.

beneficiarios 7 cotos de caza.

Se peritaron 68 casos de ataques con daños ocasionados por el lobo a la ganadería y se tramitaron las correspondientes indemnizaciones. Se concedieron ayudas para tenencia de 113 perros mastines a explotaciones ganaderas con riesgo de ataques de lobo.

6. *Gestionar de forma sostenible la Pesca*

La Orden Foral de Vedas estableció la Regulación de los Períodos y Zonas de Pesca. En 2009 se continuó con las restricciones a la pesca a causa de la plaga de mejillón cebra el embalse de Sobrón y el río Ebro en sus márgenes alavesas, ampliándose las medidas excepcionales con limitaciones a las artes de pesca en las márgenes del Zadorra. Como novedad, la Diputación estableció un punto de desinfección de reteles, de uso obligatorio para los pescadores de cangrejo del coto del Zadorra.

Se continuó en 2009 con el Convenio con la Federación de Pesca de Álava para el control de la pesca en Álava y tramitación de permisos.

Se repobló con 3.940 kg de trucha arco – iris en las zonas libres de los ríos alaveses directamente por la Diputación y con auxilio de la Federación de Pesca con otros 7.405 kilogramos más de la misma especie.

Se informaron 7 expedientes en relación con posibles afecciones a la calidad piscícola de las aguas a solicitud de URA, la Agencia Vasca del Agua.